

## ARLOAREN EDO IRAKASGAIAREN URTEKO PROGRAMAZIO DIDAKTIKOA

### PROGRAMACIÓN DIDÁCTICA ANUAL DE ÁREA O MATERIA

#### Ikasturteko programazio didaktikoa

##### Programación didáctica de curso

<b>ikastetxea:</b> <i>centro:</i>	ABADIÑO KO INSTITUTUA	<b>kodea:</b> <i>código:</i>	015071
<b>etapa:</b> <i>etapa:</i>	DBHko 1go ZIKLOA	<b>zikloa/maila:</b> <i>ciclo/nivel:</i>	2
<b>arloa/irakasgaia:</b> <i>área / materia:</i>	GEOGRAFIA ETA HISTORIA		
<b>osatutako arloak/irakasgaiak</b> <i>áreas/materias integradas</i>	- GEOGRAFIA - HISTORIA		
<b>diziplina barruko oinarriko kompetentzia elkartuak</b> <i>competencias disciplinares básicas asociadas</i>	a) Hizkuntza eta literaturarako kompetentzia d) Gizarterako eta herritartasunerako kompetentzia e) Teknologiarako kompetentzia f) Arterako kompetentzia		
<b>irakasleak:</b> <i>profesorado:</i>	LARA ARROYO	<b>ikasturtea:</b> <i>curso:</i>	2019-20

#### Zeharkako kompetentziak / Competencias transversales:

1. Hitzez, hitzik gabe eta modu digitalean komunikatzeko kompetentzia
2. Ikasten eta pentsatzen ikasteko kompetentzia
3. Elkarbizitzarako kompetentzia
4. Ekimenerako eta ekiteko espiriturako kompetentzia
5. Izaten ikasteko kompetentzia

<b>helburuak</b> <i>objetivos</i>	<b>ebaluazio-irizpideak</b> <i>criterios de evaluación</i>
1. Geografia eta Historia arloen garrantziaz jabetzea. Batetik, Geografia, ingurune hurbilaren ezagutzatik abiatuta errealitate konplexuetara. Bestetik, Historia arloaren balioa, osotasunean ulertuta. Hau da, ez bakarrik gertaeraren ezagutza hutsa modura, baizik eta, gaur egungo errealitatea ulertzeko eta azaltzeko elementuak aztertuz (2, c, d).	1. Geografia eta Historiarekiko interesa eta jakingura erakustea eta bi zientzia horiek mundua ulertzeko orduan duten garrantzia balioestea.
2. Parte-hartze aktiboa eta gainerako pertsonetikiko errespetuzkoa izatea, besteen iritzia era egokian entzunez eta norberaren akatsak zuzenduz, gelan elkarbizitza egokia sustatzeko eta, era berean, gizartea eraikitzen laguntzeko (2, 3, 4,5, d).	2. Eztabaidetan parte hartzea, horretarako, iritzi arrazoituak garatzea, Gizarte Zientzietan oinarritutako arrazoiak emanik, gainerako iritzia errespetatzea eta ondorio komunak lortzen saiatzea.
3. Ikasitako edukiei buruzko lexiko berezia menperatzea eta erabiltzea, definizioak landuz, informazio zehatza eta argia	3. Gizarte Zientziei dagokien lexikoa ulertu eta erabiltzea.
	4. Erdi Aroko denbora lerroa irudikatzea, gertakizun nagusiak izendatuz.
	5. Iturri mota ezberdinak aztertu eta alderatzea, Erdi Aroko gertakizun garrantzitsuak eta horien ezaugarriak ezagutzeko.

<p>erabiltzeko eta era egokian ikasteko edota transmititzeko (1, 2,a).</p> <p>4. Denbora markatzeko unitateak eta kategoriak erabiltzea. Denbora lerroak irudikatuz, aro historiko bakoitzaren iraupenaz jabetzea, hasiera eta amaieraren arrazoi nagusiak jakinda, gertakizun nagusiek zergatik ematen dioten aldi bakoitzari hasiera eta amaiera jakinez (2,d).</p> <p>5. Iturri mota ezberdinak aztertuz eta alderatuz, Erdi Aroko aldaketa ekonomiko, politiko, sozial eta kulturalak jakitea, emandako aurrerapen esanguratsuenak ezagutzeko eta gaur egunera arte izandako bilakaera ulertzeko (1, 2, d).</p> <p>6. Erdi Aroan Euskal Herriak eta Espainiak izandako gertaera historikoen prozesuak ezagutzea eta denboran eta espazioan kokatzea, ezaugarri orokorrak gure lurraldean nola gauzatu ziren konparatuz eta aztertuz, Euskal Herria osatzen duten lurraldeen bilakaera garatzeko eta Europako historiaren testuinguruan kokatzeko (2,4, d).</p> <p>7. Iturri ikonografikoak aztertuz, Erdi Aroko estilo artistikoen ezaugarri nagusiak jakitea Historian izandako adierazpen artistikoak baloratzeko eta gaur egun daudenekin alderatzeko (1,f,e).</p> <p>8. Iturri ezberdinak aztertuz, gertakizun historikoen arrazoi eta ondorioak identifikatzea elkarren arteko loturaz jabetzeko eta gertaera historikoetan parte duten zergatiak anitzak direla ikusteko, topikoak apurtzeko asmoz, aniztasunaren balioaz jabetzeko (1, 2, 3, d) .</p> <p>9. Irakurketa landuz, ulermena lantzea historiako aspektu ezberdinekin lotura aurkitzeko eta irakurzaletasuna bultzatzeko (1, 2,a).</p> <p>10. Iturri ezberdinak erabiliz, emakumearen presentzia Historian nolakoa izan den aztertzea, gaur egungo egoerarekin alderatzeko eta honetaz iritzi arrazoitua finkatzeko (1, 2, 3, 5, d).</p> <p>11. Testu historikoak landuz, ideia orokorrak identifikatzea, adierazpena eta ulermena finkatzeko (1,2,a).</p> <p>12. Joera demografikoak baldintzatzen dituzten faktoreak deskribatzea eta demografiari</p>	<p>5.1. Erromatar Inperioaren zatiketak izandako garrantzi historikoa ulertzea eta Bizantziar Inperioa, Inperio Karolingioa eta Islam Inperioaren arteko harremanak eta borrokak eta bakoitzaren ezaugarriak ezagutzea.</p> <p>5.2. Erdi Aroko botere politiko, sozial eta ekonomikoak ezagutzea eta gizarte-estamentuen funtzioak eta Erdi Aroko monarkien jatorria eta bilakaera ulertzea.</p> <p>6. Erdi Aroan Euskal Herrian eta Espainian emandako gertaera historikoak ezagutzea.</p> <p>6.1. Erdi Aroan zehar Iberiar Penintsulan elkarrekin bizi izan ziren unitate politiko ezberdinak denbora eta espazioan kokatzea, bakoitzaren berezitasunak azalduz eta egungo Espainian egoera hark legatu kultural eta artistiko moduan utzitako aztarnak antzematea.</p> <p>6.2. Erdi Aroan zehar Euskal lurraldeen bilakaera politikoa eta ekonomikoa ezagutzea.</p> <p>7. Erdi Aroko estilo artistiko nagusien oinarriko ezaugarriak identifikatzea, sortu ziren garaia testuinguruan barneratuz, eta ezagutza hori garai horietako artelan garrantzitsu eta adierazgarrietako batzuen azterketan aplikatzea. Baita ondare kultural eta artistikoa balioetsi eta errespetatzea ere.</p> <p>8. Iturri ezberdinak aztertuz, gertakizun historikoen arrazoi eta ondorioak ezberdintzea eta gertakarien kausa anitzez jabetzea.</p> <p>9. Irakurketak edukien barneratzean nola lagun dezakeen ulertzea eta bere garrantzia balioestea.</p> <p>10. Emakumeek historiaren bilakaeran egindako ekarpena aintzat hartzea eta euren bizi-baldintzak hobetzeko, sistema demokratikoa eratzeko eta gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna erdiesteko egindako borrokez hausnartzea.</p> <p>11. Oinarriko testu historikoak aztertzea.</p> <p>12. Demografia-joerak baldintzatzen dituzten faktoreak deskribatzea eta demografiari buruzko oinarriko kontzeptuak ezagutu eta erabiltzea demografia-azterketa egitean.</p> <p>13. Gaur egungo Euskal Herriko eta Espainiako demografiaren joerak ulertzea eta horiek eragiten dituzten ondorioak aztertzea.</p>
---	---

<p>buruzko oinarrizko kontzeptuak ezagutzea eta erabiltzea (1, 2,c, d).</p> <p>13. Euskal eta espainiar gizarteetako egungo ezaugarri nagusiak aztertzea, gure komunitate sozialen eta kulturalen aniztasuna aintzat hartuz, horietan aktiboki parte hartu ahal izateko eta gainerako kulturekiko tolerantziatzko eta errespetuzko jarrerak izateko (1,2,3,4,5, d).</p> <p>14. Hiri-eremuek izan duten hazkundera, hiriek betetzen dituzten funtzioak eta hirietako biztanleriak izaten dituzten arazoak aztertzea, gaur egungo gizarte-errealitateari buruzko debateetan parte hartzeko (1, 2, 4, , d).</p> <p>15. Gai jakin baten aurrean, informazioa bildu eta moldatu ondoren, ikaslearen iritzia finkatzea eta ahoz eta idatziz defendatzea, bai bakarka bai taldeka, autonomia pertsonala eta lankidetzaz indartzeko (1, 2, 3, 4, 5).</p>	<p>14. Inguru hurbilean dituen hirien eta munduko hirien ezaugarriak ezagutzea eta deskribatzea.</p> <p>15. Iturri ezberdinak erabiliz informazio egokia biltzea, banaka zein taldeka lan errazak egiteko eta lan horiek, idatziz edota ahoz defendatzea.</p>
--	---

**ARAZO EGOERA** [Arazo egoera bakoitzaren azken ataza, arazoa eta testuinguararen daturik errelenbanteenak agertuko dira].

**SITUACIÓN PROBLEMA** [Incluirá los datos relevantes del contexto, el problema y la tarea final de cada una de las situaciones.].

- **1. arazo egoera: “Al-Andalusen artea eta Kultura”**

**TESTUINGURUA:**

Musulmanen presentzia garrantzi handikoa izan da Iberiar Penintsulan eta horren ondorioz ondare anitza utzi dute mendeetan zehar.

**ARAZOA:**

Gertuko kultura eta arte adierazpenak ezagutzen dugu? Musulmanen egindako erakarpenak identifikatzen ditugu?

**XEDEA/HELBURUA:**

Poster bat egin behar dute, Al-Andalusen kultura eta artea azaltzen eta balioesten. Honen berri eman gelan.

- **2. arazo egoera Santa Maria Katedrala: “Denok Katedralera” EGOKITZAPENA EZ DA IRTEERARIK EGONGO**

**TESTUINGURUA:**

Gasteizko katedrala, gure lurraldeko Erdi Aroko ondarerik preziatuena da. Irteera hau ez da aurrera eraman, Apirilerako programatuta zegoela eta. Teoriaren bitartez “Gotiko garaia” emango da

**ARAZOA:**

Euskal Herriko arte adierazpenik inportanteenak ezagutzen dugu? Identifikatzen dugu gotikoko elementurik inportanteenak?

**XEDEA/HELBURUA:**

Aro honen eta arte honen ezaugarri inportanteenak identifikatzea, menperatzea eta berri ematea gelan. Iruzkina bat eginez. Iruzkina egitura ikasi eta landu. Xedea ez da aldatzen baina irteera barik egin behar dugu

- **3. arazo egoera “Gaur egungo erronka demografikoa”**

## TESTUINGURUA

Gure gizartearen egoera demografikoa aztertzea: Gaur egungo gizartearen erroka.

### ARAZO

Badakigu gure iritzia modu egokian adieraztea? Gai baten inguruan gure iritzia eman nahi dugunean, pauso batzuk jarraitu behar ditugula.

### XEDEA/HELBURUA **EGOKITZAPENA**

Debate bat sortu beharrean, bakarkako txosten bat egin behar dute arazo honen alde positiboak eta negatiboak aztertzen.

**EDUKIEN SEKUENTZIA** [denbora-tarteka, unitate didaktikoak, proiektuka, ikaskuntza-nukleoka edo beste moduren batera antolatuta...].

**SECUENCIACIÓN DE CONTENIDOS** [organización en períodos, unidades didácticas, proyectos, núcleos de aprendizaje...].

Ord 31	1. ebaluazioa.	Ord 37	2. ebaluazioa.	Ord 29	3. ebaluazioa. <b>Egokitzapena</b>
3	Sarrera: Denbora eta espazio nozioak	9	Gizarte feudalaren ezaugarri nagusiak: ekonomia, gizartea eta kultura	3	Sarrera. Geografia tresnak
9	Erdi ariaren hasiera: Herri Germaniarrak, Bizigodoak, bizantziar inperioa	8	Hirien susperraldia: XII-XIII. Mendeetako aldaketak	8	Munduko biztanleria
9	Islamaren sorrera eta hedapena. Al-Andalus konkista eta antolaketa politikoa	12	Erdi aroko arte kristaua: Erromanikoa eta Gotikoa	6	<b>Hirigintza: 3. kurtsoaren hasieran landuko da</b>
9	Gizarte Feudalaren sorrera: Karlomagnoaren inperioa	7	Gasteizko egitura Erdi Aroan: Katedralen garaia. Santa Maria katedrala <b>Egin gabe utziko da</b>	8	España eta Euskal Herria: Lurraldea, biztanleria eta hiriak
				6	<b>Mapa politikoak: 3.DBHko kurtsoaren hasieran landuko da</b>

**METODOLOGIA** [edukien antolaketa, jarduera motak, baliabide didaktikoak, ikasleen taldekatzeak, espazioen eta denboren antolaketa, irakasleen eta ikasleen eginkizuna... ikuspegi inklusibo batetik].

**METODOLOGÍA** [organización de contenidos, tipo de actividades, recursos didácticos, agrupamiento del alumnado, organización de espacios y tiempos, papel del profesorado y el alumnado... desde una perspectiva inclusiva].

#### **Oinarri psikopedagogiko eta didaktikoak:**

- Gaiaren arabera egokienak diren metodoak erabiliko dira: azalpenak (PWP aurkezpenak erabiliz), bakarka egindako lana eta ikerketak, talde lanak, eztabaidak...
- Ulermenean oinarritutako irakaskuntza bultzatuko da. Lan jarraitua egingo da, oroimen ulerkorra landuz eta funtzionalitatea bilatuz, hortaz, "egiten jakitea", "jakite" hutsari gailenduko zaio.
- Unitate bakoitzeko edukiak lantzeko ikasleen aurretiko ideietatik abiatuko gara. Horrela ikasle bakoitzak bereak dituen eskemetan ezarriko du ikasketa berria, esperientzia pertsonalean oinarrituko du.
- Azalpenak ematerakoan, unitate ezberdinen edukien artean dauden loturak azpimarratuko dira, ikasleek edukien artean lotura sare aberats bat dagoela ikusteko.
- Ikaslea ardatz duten estrategia interaktiboak nagusituko dira, beste batzuen artean, eztabaidak, simulazioak eta proiektuak planteatuko dira.
- Ikasketa prozesuan hiztegi berriari garrantzi handia emango zaio, gaiaren ezagutzarako eta hizkuntza gaitasunerako. Hori horrela, garrantzi berezia emango zaio euskarari eta ulermen eta adierazpenari, honen inguruko ekintza ezberdinak burutuz.
- Irakurketa: ulermena lantzeko ekintzak burutuko dira ikasturtean zehar eta irakurketa librea bultzatuko da ere.
- Eguneroko informazioari garrantzi berezia emango zaio, gertuko errealitatearen ezagutza abiapuntutzat hartuko dugu, espazioan urrunago dauden beste errealitate batzuk ulertzeko.
- Artelan ezberdinen zein mapa historikoen azterketa ere erabiliko da, Historiako gertakizun eta prozesu nagusiak grafikoki ere identifikatzen ikasteko.
- Berdintasunean oinarritutako lan-giroa sustatuko da, diskriminaziozko edozein jokabide baztertuko delarik. Horrez gain, unitate didaktikoetan emakumeek egindako ekarpen sozial eta historikoak integratuko dira.

#### **Jarduerak:**

Jarduera mota ezberdinak proposatuko dira:

- Motibazio-jarduerak, edukien gaineko ikaslearen aurre-ezagutzak jaso eta jakin-mina pizteko ariketa edo gogoetak.
- Garapen-jarduerak, edukien barneratzea lagunduko dutenak (mapak eta grafikoak aztertzea, testu iruzkin laburrak egitea, idazlan laburrak egitea, artelan ezberdinak aztertzea, eztabaidak...).
- Finkatze-jarduerak, informazio berria, ikasleak aurretiaz duen ezagutzarekin lotu eta ikasitakoa praktikan jartzeko (oraina eta iragana lotzeko ariketak...).
- Sintesi-jarduerak, eduki ezberdinen arteko lotura ezartzeko (mapa kontzeptualak, laburpen-taulak eta eskemak egitea...).
- Errefortzu-jarduerak, ikasketa-eritmo motelagoa duten ikasleentzat, hauen gaitasunen garapena errazteko balioko dutenak.
- Zabaltze-jarduerak, garapen-jarduerak zuzen burutu ostean, ikasketa-eritmo azkarragoa edo interes berezia duten ikasleei, ezagutzetan eta aplikazioan zabaltzeko edo sakontzeko aukera ematen dietenak.

#### **Baliabide didaktikoak:**

- Testu liburua (Geografia eta Historia 2DBH, Zubia-Santillana) eta editorialak eskainitako materiala. Testuliburua ikaslearentzat oinarri moduan erabiliko da, beste material batzuekin osatzeko.
- Irakurketa liburua. Anaya argitaletxea. "Así vivían..." bilduma. ??
- Egunkari eta aldizkariak.
- Atlas, datu estatistiko, mapa historiko, grafiko, testu, irudi eta artelanak.
- IKT (Classroom plataforma, webgunetako konexioak, dokumental, bideo laburrak...).

#### **Taldekatzeak:**

Ikasgelan ikasleak taldekatzeko, modu ezberdinak erabiliko dira: irakaslearen eta ikaslearen arteko elkarreragina eta ikasleen autonomia nahiz parekoen arteko laguntzan (Ikaskuntza kooperatiboa)

oinarritutako ikaskuntza sustatzeko. Taldeen osaketa malgua izango da ikasturtean zehar. Taldekatze horiek egiteko, ondoko irizpideak kontuan hartuko dira:

- Talde handia: Azalpenezko irakaskuntza-metodoetan oinarritutako jarduerak garatzeko. Irakaslearen eta ikasleen artean elkarrengana sendoegia izan behar ez den uneetan.
- Erdi-mailako taldea: Etabaidak burutzeko... Beti zuzendu eta koordinatuko ditu irakasleak.
- Talde txikia edota bikotea: lan-proiektu zehatzak, ikerlanak edota jarduerak egiteko erabiliko dira.
- Bakarkako lana: ikaskuntza instrumentaletarako edo zeregin bereziak egiteko.

#### **Denboraren antolamendua:**

Orokorrean, beste modu batzuk baztertu gabe, ikasturtean zehar lortutako emaitza eta unitate bakoitzaren berariazko ezaugarrien arabera, saio bakoitzean, hurrengo denborazko sekuentzia jarraituko da:

1. Aurreko saioan landutako edukiak gogoratu eta hastear dugun saioarekin lotu (3')
2. Hasierako galderak, ikasleen aurre ezagutzak ikusi eta baita ikasleak motibatuzeko eta gaian sartzeko (4').
3. Azalpenak eta jarduerak (45'). Lehenik azalpen orokorrak emanaz, gaiarekin loturiko eduki eta kontzeptu nagusiak azalduz. Ondoren, ariketa laburrak eginez, gaia finkatuz. Horiek eginik, ondorio ezberdinak alderatu, zalantzak argitu... Azkenik, guztien artean ikusitakoaren laburpena egin, azalpenak jardueretan ateratako informazioarekin osatuz.
4. Saioaren itxiera (3'). Ikusitakotik garrantzitsuena azpimarratu eta behar denean, hurrengo saiorako ikasleek egin beharrekoak esan.

#### **Irakasleen eta ikasleen eginkizuna:**

Irakaslea: ezagutzaren eta ikaslearen arteko bitartekaria izango da. Ikasten laguntzen duten egoera didaktikoak sortuz eta ikasleei ideiak adierazten eta ezagutzak egituratzen lagunduz.

Ikaslea: ikasle bakoitza bere ikasketa prozesuaren protagonista izango da. Hori horrela, ikaslea ardatz izango duten estrategiak erabiliko dira, ikertu, erlazionatu, ondorioak atera eta abar ikasleak berak egin beharko dituelarik. Horretarako, komunikazioa, partaidetza eta norberaren ekimena sustatuko dira.

**EBALUAZIO-TRESNAK** [ahozko eta idatzizko probak, galdetegiak, banakako eta taldeko lanak, behaketa-eskalak, kontrol-zerrendak, ikasgelako koadernoak, portfolioa, kontratu didaktikoa...]

**INSTRUMENTOS DE EVALUACIÓN** [pruebas orales y escritas, cuestionarios, trabajos individuales y en grupo, escalas de observación, listas de control, cuaderno de aula, portafolio, contrato didáctico...]

#### **EGOKITZAPENA**

- Klasean konektatzea. Hemen ulertzen da hainbat etxeetan baliabide digitalak ez izatea eta malgutasunez jokatu dugu, familien egoera ezagutu arte.
- Testu liburuaren eta Classroomen bidalitako lanen eta ariketen kontrola.
- Gaiarekin lotutako idazlanak edo bestelako produktuak (buru-mapa, artelan-en fitxa...)
- Unitate bakoitzeko froga edo erronka
- Gai-atal ezberdinen gaineko test eta galdetegiak

#### **ADAPTACIÓN**

**KALIFIKAZIO-IRIZPIDEAK** [ebaluazio-tresna bakoitzaren pisua eta balioa]

**CRITERIOS DE CALIFICACIÓN** [peso y valor de cada instrumento de evaluación].

#### **EGOKITZAPENA**

-1go eta 2, ebaluazioko notak izango du pisu gehien. Horretaz gain, 3. ebaluazioko lan guztiek nota hori igotzeko erabiliko dira.

\*\*Hala ere, 1go eta 2. ebaluazioko notan eragina izan dezake 3. ebaluazioan lan gutxi egiteak, klaseetara ez konektatzeak... justifikazio gabe. Malgutasunez, familia egoera ezagutu arte.

-Berreskurapenak gainditzen dituzten ikasleek 5 kalifikazioa izango dute.

**-Martxoaren 13tik aurrera:**

Klaseetan konektatuta eta parte hartzen egotea, puntualitatea.%20. Beti malgutasunez, etxeko egoerak kontuan izanda.

Lanak epean entregatzea, lanen kalitatea%20

Online frogak edota entregatzeko lanak: %60

**CRITERIOS DE CALIFICACIÓN**

#### **ADAPTACIÓN**

-Las notas de la 1ª y 2ª evaluación tendrán el mayor peso. El trabajo de la 3ª evaluación se tendrá en cuenta para subir nota.

<p><b>INSTRUMENTOS DE EVALUACIÓN</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>● Conectarse a las clases online</li> <li>● Las tareas de Classroom.</li> <li>● Redacciones y/o trabajos sobre el tema central de la unidad.</li> <li>● Prueba online o producto de cada unidad.</li> <li>● Cuestionarios y pruebas tipo-test de los diferentes contenidos trabajados.</li> </ul>	<p>No obstante, influirá en la nota final el hecho de que el/la alumno/a no haya trabajado durante la tercera evaluación o no se haya conectado a las clases sin justificación aparente.</p> <p>-Las/os alumnas/os que recuperen la 2ª evaluación obtendrán 5 como calificación.</p> <p>-Desde el 13 de marzo:</p> <p>La asistencia a las clases online, la puntualidad, participación en clase : 20%. Siempre teniendo en cuenta las diferentes situaciones familiares para poder realizarlas.</p> <p>Entrega de tareas en el plazo fijado, calidad de los trabajos:20%</p> <p>Pruebas online y/o trabajos para entregar: 60%</p>
<p><b>EBALUAZIOAREN ONDORIOAK [indartzeko eta zabaltzeko neurriak, antolamendu-egokitzapenak eta egokitzapen metodologikoak, emaitzen analisia, plangintza didaktikoaren berrikuspena, errekupeazio-sistema...].</b></p> <p><b>CONSECUENCIAS DE LA EVALUACIÓN [medidas de refuerzo y ampliación, adaptaciones organizativas y metodológicas, análisis de resultados, revisión de la planificación didáctica, sistema de recuperación...].</b></p>	
<p><b>EGOKITZAPENA</b></p> <p><b>BERRESKURATZEAK / RECUPERACIONES DE EVALUACIÓN</b></p> <p>1go eta 2.ebaluazioko helburu eta edukiak hartuko dira kontuan ikasturtea gainditzeko. Beraz, haxe izango da ikasleentzako <u>berreskurapen sistema</u> / <i>Ya que los objetivos y contenidos evaluables del curso 19-20 se han reducido a la 1ª y 2ª evaluación, <u>el sistema de recuperación para el alumnado es el siguiente:</u></i></p> <p>Edukiak, 2. ebaluaketaraino finkatuta geneuzkan helburuak izango dira , gai horien errepeto ariketak, hemendik eta kurtso amaierara egiteko. /<i>Objetivos planteados en la programación hasta la 2ª evaluación, trabajos de repaso de esas unidades hasta que finalice el curso.</i></p> <p>Momentuz ez dakigu aurreko azterketak egiteko aukerarik izango dugun ala ez, beraz ez dugu aukera hau baztertu ikasle batzuen egoerak horrela eskatzen badu. Ohiko deialdian gaindituko ez balute, ezohiko deialdian aukera izango dute gainditzeko. / <i>Por el momento, no descartamos la posibilidad de realizar algún examen presencial, dependiendo de la situación de algún alumno. Aquellos que no aprueben en la convocatoria ordinaria, tendrán la opción de superar la asignatura en la convocatoria extraordinaria.</i></p> <p><b>PENDIENTEAK / ASIGNATURAS PENDIENTES DE OTROS CURSOS</b></p> <p>Ikuskaritzaren informazioaren zain gauden bitartean, momentuz, ezin izango dugu modu presentzian azterketarik egin. Beti bezala, landu dituzten txostenen inguruko frogak bat izango da.</p> <p>Bestalde, zentzura bueltatzeko aukerarik ez badago, frogak era digitalean egingo da, txostenetako edukiak, hau da, aurreko ikasturteko edukiak, bereganatu diren edo ez ziurtatu ahal izateko.</p>	

*Cómo siempre la calificación sobre las asignaturas pendientes de cursos anteriores se realizará mediante una prueba.*

*Si no se dan las condiciones de realizar dicha prueba de forma presencial se realizará de forma digital / online.*

**Frogak formatu ezberdinetan egin ahalko dira:**

- -AURREZ-AURREKO BIDEO DEIA: Landutako ariketen galdera/azalpenen bidez. Ikaslearen ahozko adierazpena baloratzeko.
- -IKASGELA: Gai jakin baten idatzizko testuen bidez, ikaslearen idatzizko adierazpena baloratzeko.
- -GOOGLE IMPRIMAKIAK: Aurreko ikasturteko edukiei buruzko ariketak. Ikaslearen oinarritzko edukien lorpena baloratu ahal izateko.

***Las pruebas podrán realizarse en diferentes formatos:***

- *Por video-conferencia: mediante preguntas y explicaciones sobre las tareas trabajadas.*
- *En clase: mediante pruebas escritas*
- *Formularios Google: mediante diferentes tareas y/o cuestionarios sobre contenidos del curso anterior.*

**OHARRAK / OBSERVACIONES**

--